

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 16a


**Egunkaria**

Gehigarri honetan

**Lizarra** • Takahiro Kitamura japoniarra zura lantzeraz etorri da.

**Alfonso Askunze** • «Zaindari lana pisua eta totemikoa da».

## Hildakoen azken



• MIKEL SAIZ

## soseguen lekuko

Inaxi eta Juanita Astibia Lasarte leitzarrak hainbat urte egin dituzte hildakoak beztitzen. Nafarroako herri gehienetan bezala, Leitzan norbaiti egokitu behar zitzaion berez atsegina ez den lan hori egitea. Haien lekukoa, beste tokietan bezala, ehorztetxeek hartu dute, doakoa zen lana negozio bilakatuz.

Egun, 135.000 pezeta da ehorzketa merkeena Hegoaldean (5.400 libera), Consumer aldizkariak egindako ikerketa baten arabera. Orain urteetan aurrera badoaz ere, gogoan dituzte garai haietako hainbat gertakari eta oso eskertua ez den lan hori bete beharra.

Bera ●

# Literatura ttikienentzat

Liburu Egunaren aitzakian, Liburu Ttiki Eguna eginen da heldu den astean

**Apirilaren 23an Liburu Eguna ospatzen dela aitzakia hartuta, ttikienei literatura hurbiltzeko ekitaldi bat antolatu du Lamixine BAT antzerki taldeak, bigarrenkoz. Joan den urteko esperentziaren haritik, bertze ekitaldi bat antolatu dute datorren astelehenetik asteazkena bitartean.**



Hainbat ikaslek liburuetara hurbiltzeko aukera dute datorren astean Beran. ● ARTXIBOKOA

**H**ELDU DEN ORTZIRALEAN helduentzako eginen den Liburu Egunean Arrate Egaña idazlea ekarriko dute Lamixine BAT antzerki taldekoek. Oraindik deus ere argitaratu gabe duen arren, hil hondarrerako edo maiatz hasierarako argitaratuko du bere lehenbiziko liburua Arrate Egañak. SM argitaletxeak antolatzen duen haur literatura lehiaketa prestijotsuenetako bat irabazi du berriki liburu horrekin: *Barco de vapor*. Liburu hori hartuko dute ardatz hiru egunez 6 urtetik 12ra bitarteko haurrekin lantzeko. Txandaka, Lehen Hezkun-

tzako 1. mailatik 6.era bitarteko haurrak pasatuko dira Berako kultur etxetik. Astelehenean, ttikiak ariko dira, 1 eta 2. mailakoak; asteartean, 3 eta 4.ekoak, eta asteazkenean, 5 eta 6.ekoak.

**Liburu Egunean ere izanen da Arrate Egaña**

Hiru orduko ariketa izanen du talde bakoitzak. Ipuin kontalari batek Arrate Egañaren liburuaren hasiera kontatuko du, eta puntu batera iritsitakoan, eten eginen du. Orduan, haurrak taldetan bana-

tuko dira. Adierazpen ezberdinen bidez ipuinari jarraipena emanen diote haurrek, dela antzerkiaren bidez, dela idatziz, dela plastikaren bidez. Erabat libre izanen dute zein modutan adierazi nahi duten euren ipuinaren bukaera. Lan hori amaitutakoan, gainerako ikasleei erakutsiko diete egindako lana. Lan hori bukatu ondotik, Arrate Egañak ipuinari eman dion bukaera jakin ahal izanen dute, eta berriz ere ipuin kontalariak *buzker egiten zuen printzesari* zer gertatu zitzaion kontatuko du.

Helduen liburu egunerako ere Arrate Egañaren lanak hautatu dituzte aurten Lamixine BAT taldeko kideek. Ortziralean, arratsaldeko 20:00etatik goiti ekitaldi bizi izanen, zeinetan Arrate Egaña bera ikusleekin batera izanen den. Aitzineko urteetako eskemari jarraiki, haren lanen errepasso bat eginen dute Lamixine BAT antzerki taldekoek, haren lanak irakurri, antzetzuz... Ondoren, solasaldi bat prestatu dute idazlearekin.

→ Jon Abril

**Errazkin  
Herriaren  
Eguna, bihar**

DUELA LAU URTEKO BIDEARI jarraituz, aurten ere, apirilean, Herriaren Eguna ospatuko dute errazkindarrek. Abuztuko Ama Birjinaren inguruan ospatzen diren herriko jaietz gain bestelako festarik ere behar zutela eta, Errazkinen Eguna ospatzea otu zitzaion duela hiru urte herriko hainbat gazteri.

Lehenengo urtean, herriko aitona-amonarik zaharrenak omendu zituzten. Bigarrenok, berriz, herriko bertsolariak. Jose Fermin Argiñarena eta haren anaia. Iaz, herriko pilotariak omendu zituzten. Martinikorenatarrena ere sona handiko sendia izaki, anaia guztiak bildu eta txalotu zituzten herritarrek. Aurten, ordea, ez dute inor jakinik goresteko; omenaldia herri guztiak mezezi omen du.

Omenaldirik ez izan arren, ordea, jai girorik ez da faltako. Goiz partean, txistulariak ariko dira Errazkinen barrena. Auzo batekoak zein bestekoak herri bazkarian bilduko dira. Giro ona eginez gero, behintzat, herriko pilotalekuan egin asmo dute bazkaria. Eta mahaiak paraturik egongo direnez eta bazkalondoko giroa aproposa denez, ohiko mus txapelketa izango da ondoren. Festak gauean jarraituko du, Amaia eta Kristina trikitalarien musikaren arrimotan.

→ Urko Aristi

*muga enea*

MIKEL REPARAZ



## Paleontologiaren aurkikuntza bitxiak

**A**rabako Izkiz mendietatik Kodesen eta Egak bustitako lurretan barrena ibili omen zen duela 73 milioi urte Euskal Herriko dinosaururik zaharrena. Titanosauo izenekoa zen, behi zuri beltz erraldoia, lohi artean muturrak sartzen zituen apote barea. Hamar metroko luzera zuen Titanosauoak muturretik buztanera, eta hiru mila kiloko karga. Barea zen, bai, koipe hutsa, belarjale lotia. Inutila. Inutila baina Euskal Herriko errege. Titanosauo baitzen zaharrena, eta Lautadatik Piriniora ez baitzen berori baino tripaundi gizenagorik. Urteak pasa ahala, ordea, Titanosauo Ega ibarretik desagertu zen, meteorito batek kaskan jo zuelako ustez, edo eta beste zenbaitzuek diotenez martzianoek Biana parean aparkatu zutelako

plater hegalaria, eta Plutonerako bidean probisioak behar zituztenez, apote erraldoiari lepozaina ebaki ziotelako.

Eta gauza da Historiak Titanosauoren hezurrik baino ez zizkigula utzi, Izkiz mendietan erdi lurperaturik. Hezurrik aurkitu dituzten profesore zientifikoek, ordea, badakite, Titanosauoak ondorengoak utzi zituela, eta jakina da Cro-Magnonen eta Aitor Zahararren atzetik tirano arrotzak iritsi zirela Egaren ibarrera. Erromatarrek gauza onak ekarri zizkigutela dioenik ere bada oraindik, Franco generalari esker bizi kalitatea igo zela badioen bezelaxe. Baina azkenaldian hedabideen agoran erne egon dena jabetuko zen honezkero: Titanosauo gure artean dabil artean ere. Agian ez hiru mila

kiloko behi zuri-beltzaren gorputzean, baina bizirik finean. Kodes mendietatik behera eguneroko egin ohi du bere osteralditxo, Kosovon sistematikoki bortxatutako emakumei Nazio Batuen erakundeak oharrezko pildorak ematen dizkiela entzuten duen arte, edo eta telebistan ulertzen ez duen hizkuntzaz mintzo ziren kaputxadunak atera direla aditzen duen arte. Halakoetan orro egin ohi du Titanosauoak, eta eroturik jaitsi ohi da hirira, aurrean aurkitzen duen oro zapalduz eta harrapatuz, trafikoa bideratzen ari diren polizia baketsuak barne.

Kodes mendietatik Egara, eta Egatik-Urbanas barrena- Iruñeraino, eguneroko, minutuoroko egiten du bere osteralditxo, duela 73 milioi urte bezelaxe, bera baita erregea, zaharrena. Jaun eta jabe.

# Lizarra • Artearen sakontasunean miatzen

Takahiro Kitamura japoniarra zura lantzeko teknika ikastera etorri da herrira

**Hirugarren urtez jarraian etorri da Ega ibalak zeharkatzen duen hirira Takahiro Kitamura artista japoniarra. Bertan hilabete eta erdi eman du zuraren inguruko ikasketak sakontzen.**



Takahiro Kitamura zura lantzeko teknikak ikastera etorri da Lizarrara.  
• ARTXIBOKOA

TAKAHIRO KITAMURA 1997. urteko apirilean etorri zen aurrenekoz Lizarrara. Haren lagun Ikeda Munehirok Donejakue Bidea egin zuen urtebete lehenago, eta bertan ikusitakoaz hitz egin zion Takahiro; hots, Erromanikoaz, elizetako harriez, paisaiak, lasaitasunaz, jendearen harrera onaz... Halaber, bidean ikusi zituen hainbat eskulangileren berri ere eman zion. Takahirok ez zuen aitzakia gehiagorik izan behar. Urtebete geroago, maletak hartu eta Lizarrarat abiatu zen. Zura lantzen duten eskulangileak ezagutzea zuen xede nagusia. Izan ere, hemen lantzen

diren teknikak ikasi nahi zituen Takahirok. Horrelaxe ezagutu zuen Lizarran Karmelo Boneta zurgina. Hilabetez aritu zen Bonetaren tailerlean, hark egiten zuen lanari so: zein lan tresna erabiltzen zituen, lanabesak nola maneiatzen zituen, erremintari non eta nola ematen zion mailukada. Hemengo artisauen

lana berregiten ere salatu zen artista japoniarra. «Eskulangileek zura lantzeko erabiltzen duten teknika nire herrialdean baino askoz ere garatuagoa dago hemen. Japonian bertzelako lehengaiak erabiltzen dira artearen euskarri gisa; esaterako, eskulturan brontzea erabiltzen da batez ere», azaldu du Takahirok.

Joan den urtean bigarren bidaia egin zuen. Bertze hilabete bat aritu zen Lizarran, eta bertako kultur etxean bere lanaren erakusketa ere egin zuen. Santiagorako bidaia egiteko tartea ere aurkitu zuen Takahirok, eta geroztik Lizarra bihotzean duela dio. «Nire bigarren herrialdea da herrixka hau, erabat maite-minduta nago Lizarrarekin. Hemen oreka ederrean bizi dira antzinakotasuna eta gaurkototasuna; oso agerian dago hori bertako eraikinetan. Gainera, bertako jendea zoragarria da, oso atsegina», gaineratu du.

Takahiro oso erraz ohitu da hemengo bizimoduetara, eta dagoeneko txapel eta guzti ibiltzen da karriketatik barrena.

Azkeneko bidaian hilabete eta erdi eman hemen. Oraingo honetan, ikasketak alde batera utzi eta lan berri bat egiten aritu da gau eta egun. Orotara, hainbat zur klase erabilita, 13 eskultura landu ditu. Horiek Lizarran utziko ditu eta hurrengo urtean, berriro ere bueltatzen denean, margotu egingen ditu. Horrela, Euskal Herrian barrena erakusketa bat egingen du.

→ Kristina Berasain



## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Lamixine berriz oholtza gainean

Berako Lamixine Antzerki Tailerrak *Caricias* bere azken lanaren bigarren estreinaldia egingen du herriko Kultur Etxean igandean, publikoak hala eskatuta. Hori dela eta, taldeko kideekin solastu da **Ttipa** aldizkariako kazetari Asier Gogortza, argitalpenaren azken zenbakian, eta ondokoak dira Lamixinekoek errandakoak.

Sergi Belbelen *Caricias* aukeratzeko izan zituzten arrazoiei buruz galdetuta, zera erantzun zuten antzerki tailerreko kideek: «Gehienak ados ginen testu idatzitako aukeratzearrekin. Hau izan zen gehien gustatu zitzaiguna, baina baita beldur

gehien ematen ziguna ere. Izan ere, hizkera arrunt gordina erabiltzen da, eta egoera batzuk ere ez dira sobera arruntak: ez da ohikoa felazio bat agertokian ikustea, adibidez».

«Guretzat erronka bat zen obra hau. Ez genekien nola erreakzionatuko zuen publikoak. Orokorrean jendea gustatu egin zaio. Gogor samarra dela bai, baina maila hobetu dugula erran digute. Batez ere gazteriak hartu du ongi, guk espero genuen bezala, baina jende helduagoak ere erreakzio ona izan du antzezlanaren aitzinean. Dena den, badago bertzerik pentsa-

tzen duen jendea ere. Batzuentzat gustu txarrekoa izan da, desatsegina. Gaizki sentitu badira, obrak zein bakarrik bizi garen adierazten duelako da. Publikoak azkarra da, pentsakorra, ez da azalekoan gelditzen».

Taldearen helburuei buruz ere mintzatu dira Lamixinekoak: «Publikoarekin harreman estuagoa izan nahi dugu, eta baita ere gure lantegia jendea ezagutzera eman. Horretarako aurten bizpahiru aldiz atera nahi dugu jendaurrean. Uda baino lehen seguraski zerbait egingen dugu, baina ez dakigu zehazki zer».



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Eskutitz bat Lucilliori

Esaten didazu, Lucilio, zure semeak ordenagailuaren aurrean ematen dituela egunak eta gauak, eta joko bortitzekin ematen dituela gainera, eta begiratzen duzun bakoitzean pantailan gauza ikaragarriago bat ikusten duzula, odola edonondik, buru apurtuak eta metrailetaz iguzgarriak. Ulertzen dut kezkatua egotea. Bainan gauza bat esango dizut, adiskide maitea, zure semeak OSO ONGI egiten du. Irudika dezaket zure harri-dura: ez al da bada, gauza penagarri bat ordenagailu-jokoan bortizkeria odoltsu eta tripakiduna? Ez al gaitu urrutuzen Jakintzaren magaletik eta guzti horietatik? Ez ba, Lucilio, ez ba. Zure semeak ongi egiten duela esaten dizut eta horren zergatia amurraina ur gardean bezala ikusiko duzu segituan. Gogoan izango duzu nola orain dela bi hilabete, jakin genuen Carmagedon izeneko ordenagailu-joko batean, jokalariek, gurdi bat gidatzen, pantailan hiritarrak harrapatu behar zituela ahal eta puntu gehien lortzeko. Jokoa, beraz, erabat odoltsua zen eta gure umeen heziketan traba izango zelakoa debekatu zuten. Senatore batek, Pancha Navarrete delakoak, gehiago eskatu zuen: gainerako joko bortitz guztiak ere debekatu behar zirela alegia. Debekatzea erraza da eta debekua indarrean jartzea zailagoa. Seguraski zure semeak ere pantailan gurdi gidariaren egin ditu, seguro nago puntu dexente lortu dituela haurdun dauden emakume birtualak harrapatzen, bai eta zombiak eta zenturionak kolpatzen eta desegiten ere. Jarrera guztiz zibikoa da hori baldin eta, noski, benetako gurdiarekin benetako zenturionen aginduak bete eta hirian inork harrapatu gabe ibiltzen bada gero. Ikusten dut jada amurraina begien aurrean duzula, bainan ur uher guztiak uxatzearen benetako Pancha Navarretaren benetako pasadizo batekin bukatuko dut. Lehengo egunean gure Senatore hau, gurdi bat gidatzen agertu zen Foroan. Noiz eta Jupiter Capitolinoren prozesioa hastera zihonean. Zenturion batek bidea galarazi zion eta guztien aurrean, gurdiak gelditu ez eta trafikoz zenturiona harrapatu eta Foroaren zabalera guztian eraman zuen arrastaka! Hau bai benetako Carmagedon! Puntuazio latza emango bazioten sikiera!

# Inaxi eta Juanita Astibia

Hilen beztiztaile izanak

## «Ez duzu egiten gustukoa delako, beharragatik baizi»

**Inaxi eta Juanita Astibia Lasarte leitzarrek hainbat urte egin dituzte hilak bezituzten. Nafarroako herri gehienetan bezala, Leitizan norbait egokitu behar zitzaion berez atsegina ez den lan hori egitea. Haien lekukoa, beste tokietan bezala, ehorztxeek hartu dute, eta doan egiten zen lana negozio bihurtu da. Egun, 135.000 pezeta da ehorzketa merkeena Hegoaldean, Consumer aldizkariak egindako ikerketa baten arabera (5.400 libera). Urteetan aurrera badoaz ere (Inaxik 78 urte ditu eta Juanitatxok 80), gogoan dituzte garai haletako hainbat gertakari.**

A LINEAN BIZI DIRA BI AHIZPA HAUEK, LEITZAKO herriaren erdi-erdian dagoen XIX. mendeko harrizko etxe batean, eta hantxe hartu gaituzte. Hildakoak bezituzten biak aritu badira ere, Inaxik bakarrik hitz egin du, lasai eta patxadan, bizi izan dituzten iraganeko pasarteak.

### ■ Hilak janzten nolatan hasi zineten?

Norbait behartu zen eta deitu ziguten. Norbait ekan «etorriko zara eta jantziko duzu», eta ez ginen atrebitzen ezetz esatera. Tokatzen zaizu egitea, baina ez atsegina delako.

### ■ Jantzi ez ezik, josi ere egiten zenituzten hilak?

Etxean beti josi dugu, zergatik amak beti zerbait josten zuten. Gero Juanitatxo etxean gelditu zen eta ni neskamea joan nintzen. Juanitatxok Tolosan ikasi zuen eta etorri nintzeneren biok segitu genuen josten.

### ■ Noiz hasi zinen horrelako lanetan?

Ez dakit, baina gazterik. Uste nuen ez nuela sekulan eginen, eta hil zen beheko pisuan bizi zen izebaren izeba, Basilia Azanza, Peritza herriko etxeko ahaideetakoa zen Zabaleta batekin ezkondua, eta beti esaten zidan «guk bezituzteko dugu» eta nik erantzuten nion ezetz. Gauean hil zen eta bien artean jantzi genuen. Orduan kendu zitzaidan beldurra, eta geroztik etxe guztietara deitzen zidaten. Urte asko dira hori gertatu zela.



Inaxiren eskuak ez dira lehenagokoak. Egun, ez du hilentzako abiturik egiten, ez eta hilak janzten ere. ● MIKEL SAIZ

Etzera Lizarratik etorri eta bi edo hiru urtera hasi nintzen, hamazazpi urterekin edo. Badakit hura izan zela aurrenekoa, baina gero segidan esateko zein tokatzen zen ez, zergatik ez zen batere gustukoa joan beharra.

### ■ Nolako da prozesua?

Orduan abituak janzten ziren. Gizonak abitu beltza izaten zuten beharainokoa; baziren San Luisen jantzia nahi izaten zutenak eta tunika zuria jartzten zitzaizkiren.

Emakumeei, berriz, jantzi soineko beltza, eta ezkontzen zenean erosten zuten mantu beltza jartzten zitzaizkiren. Eskuetan gurutzeta edo arrosarioa eta kopetan painulo txuria jartzten genien. Mantua jartzea hain tristeza iruditzen zitzaizkidan, batzuetan mantalin polit bat jarri izan dugu. Dendarineko etxeko ama hil zenean mantalinarekin jantzi genuen. Mantua oso tristea zen.

### ■ Makillajerik ematen zen?

Ez. Orduan ez zen moldatzen. Egindako azkenekoetan makillatu dut, baina lehenago garbitu bakarrik, eta ahoa ixteko guata sarjentzen genien osotara barrera gelditzen zelako.

Gustatzen zait makillajea, kolore pixka bat ematen dio eta ez du hainbesteko hil kolorea hartzen.

### ■ Nork erakutsi dizue?

Inork ez. Ama josten aritzen zen orain janzten dituzten tunikak. Tolosan tokatu zitzaizkidan lehengusu baten gizona hil zela eta ikusi nuen nola ekarri zuten Donostiatik egina. Pentsatu nuen, «zenbatez hobeki tunikarekin eta ez guk janzten ditugun bezala». Etoritzen zirenean, gauze ere etorriko ziren igoalazko hiruretan abitua egiteko, eta joaten nintzen Pasegoko dendara oihala eske.

### ■ Orain egiten duzue?

Aspaldi erretiratu ginen. Mojak etorri zirenean haiek hasi ziren etxe askotara eta ni kontentatu mojarri deitzen ziotenean, eta hara joateko lanik ez nuenean. Mojak jantzi dituzte hemen franko, eta orain nola hain erraza den maindian biltzen, etxeko edozeinek egiten dio. Hildakoak ikustera joaten naizenean ikusten dut zein dagoen etxean egina eta zein ez. Ezagutzen da nork eginda den. Jantzi nuen azkenekoa Añaldeko Mari zena izan zela uste dut; egia esan, ez naiz akordatzeko. Askok, eta adin guztietakoak jantzi dituzte.

### Ez da gustoko lana

■ Gertuko jendea eta askotan oso ezaguna jantzi izanaren duzue. Zer sentitzen duzue horretan?

Ez dakit. Burutik kendu nahi duzu egindako lana. Ahal duzuna egiten duzu eta akabo, ez duzu gehiago pentsatu nahi. Egin egiten duzu ez gustukoa delako, beharragatik



Josi eta Inaxi Astibia Leaitzpak. ● MIKEL SAIZ

baizik. Orduan ez zuen inork janzten eta deitzen zuten tokietara joaten ginen. Beste batzuk ere izanen dira jantzi dituztenak, denetan ez nintzen ibili.

### ■ Dena den, ordu txarretan eta eguraldi kaskarrarekin ere ibili izan zarete?

Bai. Igoal goizeko hiruretan etorriko ziren ate joka eta ez dakit nongoa hil dela eta joan beharko duzuela. Aurrera Pasegoaneko etzera joan behar genuen, tela erosi eta josi. Gauza bat gogoan dut eta ez zait sekulan ahaztuko. Boxekan Bordako gizona hil zen, abitua egin behar eta ez zen argirik, gau guztirako kentzen zutelako garai hartan. Argizarien argiarekin josi genuen. Baserritan ere ibili ginen, baino gutxiago. Badituzte asko jantziak, baina askori abitua eginda ematen zuten eta berak janzten zitoten.

### ■ Orain ohiturak aldatu dira eta ez dago lehenagoko zeremoniarik?

Ez. Orain errazagoa eta hobeagoa da. Gehiago gustatzen zait maindianekin hila oihala jartzten ditenean. Errazagoa da egiten, eta hobekiago gelditzen dira, nire gusturako. Badakizu zer zen hainbeste arropa beltza eta mantu emakumeentzat! Orain hobekiago dago.

### ■ Leitza hainbat jende jantzi izan duzue. Nabaritzen zen dirudunaren eta pobrearen arteko desberdintasuna?

Ez. Horretan denak igoalaz ziren. Jantzeko orduan emakumeak beltzez izaten ziren, soineko beltza eta mantu, eta gizonak trajearekin, zuenak behintzat, eta beste batzuk abiturarekin.

### ■ Materialak aldatu dira?

Ez. Orduko eta oraindiko maindianekin berdina dira. Beltza zenean denentzat igoala izaten zen, ez zen esaten tela hobeagoa edo merkeagoa nahi zen. Hartu behar nuen tela Pasego etxeko dendatik, ez nuen prezioa ere galdetzen, eta gero etorriko ziren familiakoak pagatzera eta horretanxe izaten zen dena.

### ■ Donostia asko joaten zineten lehenago. Jendeari zertan aritzen zineten esaten zeniotenean harritu egiten zen?

Ez dut behin ere esan zertan aritzen ginen eta ez zidaten galdetzen. Lehen ez zen ofizio bat, dirua ateratzeko lana ez baitzen hori. Egiteko lana zen, baina sekulan kobratu, ez jostea ez bestea; tela zen kobratzen zen bakarra.

### ■ Baduzue ordezkorik?

Ez dut uste. Ohituratu da bakoitzak berean egitea. Orain hil-oihala egitea oso erraza denez, niri behinik behin aspaldian ez zait inor etorri.

### ■ Ez duzu penarik lan hori galduko delako?

Ez. Beti jendea hiltzen denean jantzita joanen da eta ez larru gorritan. Ez da galduko, baina bakoitzak bere modura egiten du, eta etxeetan ere asko moldatzen dira. Ez zait damutzen egin izana egin behar zelako, baino utzi izana ere batere penarik ez.

### ■ Beste lanbide bat nahiago izan zenuen?

Hobeia izan balitz bai, baino gure denboretan ez zen lanik. Leitza paper fabrika ez zen hasia eta ez zegoen beste lanik. Neskame joan behar zenuen, ni bezala, edo josten ari etxean. Ama beti josten ibilia zen eta jostera atzeratu ginen. Gogorra zen jostea ere, gutxi irabazten zelako.

### Inaxiren gerra garia

#### ■ Neskame nora joan zinen?

Lizarrara. Ruiz de Aldare falangistaren etzera. Han zazpi urte pasatuta etorri nintzen Leitza, eta josten segitu genuen. 1936an joan nintzen eta 1943an bueltatu. Hamabost urterekin joan nintzen. Aita 60 urterekin hil zen eta ama 73rekin. Sei senide izan ginen eta lau bizi gara.

#### ■ Espainiako Gerra Zibilearen garaia bizi izan zenuen, beraz?



Inaxi Astibia:

«Burutik kendu nahi duzu egindako lana. Ahal duzuna egiten duzu eta akabo, ez duzu gehiago pentsatu nahi. Ahaztu egin nahi duzu.»

«Orain gehiago gustatzen zait. Maindianekin hila oihala eginda, errazagoa da egiten eta hobekiago gelditzen dira, nire gusturako. Badakizu zer zen hainbeste arropa beltz eta mantu emakumeentzat! Orain hobekiago dago.»

«Ez dut behin ere esan zertan aritzen ginen. Ez zidaten galdetzen. Lehen ez zen ofizio bat, dirua ateratzeko lana ez baitzen hori. Egiteko lana zen, baina sekulan ez zitzaizkidan bururatu lan hori kobratzea.»

«Guk etxean ez genuen sumatu gerra, baina ikaragarria izan zen. Erriberatik, Lodosa aldetik-eta, ekartzen zuten jendea hartu eta denak hil egiten zituzten eta uzten zituzten ongi lurperatu gabe, eta handik ezin zitekeen pasatu zegoen usainarekin. Jende askok oso gaizki pasatu zuten.»

Bai, baina Lizarran pasatu nuen. Gauza txar asko ikusi nituen. Han jende asko hil zuten. Ni nengoen familian falangistak ziren. Fundadorea, Jose Antonio Primo de Riverarekin, Ruiz de Alda zen. Hura segituan fusilatu zuten Madrilen, batere kulparik gabe neskamea eta txoferra ere hil zituzten, eta andrea kartzelan sartu zuten. Ume bat zuten eta hura Lizarrara bidali zuten, aurretik bazekielako gerra heldu zela, eta Lizarran hazi zen, Ruiz de Aldaren arreba etxean. Niretzat oso onak ziren.

#### ■ Zazpi urte han egonik, gerra garai guztia ikusi zenuen?

Asko ziren hildakoak eta askok oso gaizki pasatu zuten. Alkatea, Fortunato Agirre, nola ibili zen! Guk etxean ez genuen sumatu, baina ikaragarria izan zen. Erriberatik, Lodosa aldetik-eta ekartzen zuten jendea kamioietan, eta denak hil egiten zituzten. Uzten zituzten ongi lurperatu gabe, eta handik ezin zitekeen pasatu zegoen usainarekin.

#### ■ Nola gogoratzen duzu?

Eragin handia egin zidan. Hamabost urte nituen eta aita nazionalista zen. Miguel Antonio Astibia, Agerreko Bordakoa zen. Beti hori ikusi genuen etxean eta nik asko sofritzen nuen kamionak jendez hustu, eraman, eta berri bete, bueltan ekartzeko. Hori dena ikustea gogorra izan zen. Leitza, berriz, ez zen horrelakorik gertatu. Askotan jolasean jartzten garenen Leitza hau eta hura hil zuten esaten da, baina erantzuten diet hemen gertatutakoa ez dela deus. Nik ikusi ditudana aldean ez da deus.

#### ■ Handik Leitza bueltatu zinen?

Bai. Ahizpa bakarrik josteko gutxi zen eta etzera etorri nintzen. Hala ere, beti amistadea izan dugu, joaten naiz nire etzera bezala, atzo ere han nintzen. Oso ongi moldatzen naiz familiarekin. Haiek ez ziren jalo ni han egon nintzenera, baina gurasoekin segitu nuen eta gero umeekin.

#### ■ Hainbeste hildako ikusita, nola ikusten duzue heriotza?

Heriotza beti heriotza da. Hala ere, ez diot beldurrik. Kontua ateratzen denean, esaten dut zerua guretzat egina dagoela. Nor sartu behar dute gu ez bagaituzte sartzen?

#### ■ Leitza gauza asko ikusi izan dituzte. Asko aldatu da?

Bai. Lehen jende aberatsa eta handia etortzen zen uda pasatzea. Primo de Riverarenak izan ziren hemen. Orain, aldiz, gauzak asko aldatu dira. Orduan aberatsak alde batean eta pobre break bestean izaten ginen. Orain gehiago nahasten gara.

Etzera garbitzeko laguntzaile iritsi zaie oharkabea. Inaxik eskua hautsia du eta Juanitatxok bizkarrezurretik gaizki dabil, isiltzeko garaia iritsi da eta ateraino lagundu gaitu Inaxik.

→ Irene Arrizurieta / Leitza

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Nafarroako lehen egunkariaren egilea: Nipho

**Grazia luzeko Francisco Sebastián Manuel Mariano 1719ko ekainaren 10ean sortu zen Teruel aldeko Alcañizen; aita Napoliko Sebastian Nipho zuen, goren graduazioko militarra, eta ama berriz, Iruñeko Brigida Cagigal. Nahiz aragoarra izan, eta amaren aldetik Nafarroara hurbiltzeko aukera izan, Nipho Madrilen bizi izan zen gutxiz gehieneko denbora, eta hantxe zendu zitzaigun 1803ko urtarrilaren 10ean.**



**I**dazle profesionala izan zen Nipho, ez idatzitakoaren kalitateaz bezainbatean, izkiriatzen zuenaz bizi izan baitzen baizik. XVIII. mende hartan nahikoa zaila agitzen zena. Sos gehien eman ziona itzulpenak izan ziren; Caracciolo markisaren lan guztiak gaztelaniaratu zituen, baita Fai Jacinto Montargonen *Diccionario apostólico* edota beste lan erligiosoa, edo Florianen lanak.

Ilustrazioaren garaiko egilea guztiak bezala, antzerkiak kezkatzen zuen, eta egile ezeze, baita antzerkiaren gaineko teoriagilea izan zen. Behialakoan eman izan da argitara antzerkirako berak formulatu erreforma, *Idea política y cristiana para reformar el actual teatro de España y conducirle en pocos años al estado de perfección que desea el magistrado y pueda constituirse por modelo de todos los de Europa*. Halaz guztiz, eskuizkribu hau topatu aurretik bagenuen bere ideien berri, bere *Diario extranjero* egunkariaren orrialdeetan agertu baitzuen *Poética dramática*. Madrileko Gurutzearen antzokian *Dios protege la inocencia y Elvira reina de Navarra* izenburuko antzezlanak jokatu zuen estreinakoz 1788ko maiatzaren 10etik 15era. Argumentua Juan Marianaren historian topatu zuen (VIII. Alea, XIII. Kap.). Trigerosek lan honen gainean egin zuen kritikak eztabaida guritsuá sortarazi zuen; Escenofilo Ortomeno ezinez Niphok berak erantzun zion *Carta acerca del drama nuevo intitulado...* idazkian bere tesiak azaldu zituela; erdibidean kokatzen zen, eta Calderonen zein XVII. mendeko antzerki barrokoa goraiatu bazuen ere bere 1764ko *La na-*

*ción española defendida de los insultos de El Pensador y sus secuaces* Clavijo fajardoren kontra, haren desagerketa ere eskatu zuen besteetan. Horregatik ausaz, Menéndez Pelayok ideologia garbiren eza leporatu zion, eta horren ezarian, anti-entziklopedista eta tradizionalistatzat jo zuen, bere interesen arabera naski. Alabaina, Samaniego, Iriarte edo Moratin zaharrendandik hurbilagoan zegokeen Ramón de la Cruzengandik baino. Honen froga, Roussearen Pygmalon melologoaren itzulpena, Duran, González del Castillo, Suarez eta Rojo idazleek eginikoen ostean penintsulan agertu bosgarren aldaera, edota metastasio- ren lanen itzulpena.

Alabaina, kazetari izan genuen Nipho bereziki, Karlos III.aren agintegoko lehenbiziko hamabi urteetan bederatzialdikako argitalpen bat karrikaratu zuela, tartean, Manuel Ruiz de Uribe ezizenarekin Espainian argitara eman zen lehenbiziko egunkaria, hau da, Madrilen 1758ko *Diario Noticioso erudito y comercial, público y económico*; Niphok utzi ondorean, Lozano eta Thèvinen eskuetatik pasatu zuen *Diario de Madrid* aldatuta 1918ra arte. Atera zuen bigarrena 1759ko *La Estafeta de Londres* izan zen, gutunetan emanda, eta 1779an eta 1786an berriz editaturik. Antzeko gaiak jorratzeko 1761eko *El murmurador imparcial* eta 1763ko *Correo general histórico, literario y económico de la Europa* izan ziren. Urte berean *Diario extranjero: noticias importantes y gustosas para los verdaderos apasio-*

*nados de artes y ciencias* agertarazi zuen Madrilen, Espainiaz kanpoko argitalpenen berri emateko, *Journal des Savants* eta *Annales Typographiques* argitalpen frantsesetik zuzenean itzultako testuen bitartez. Marmontelen elaberri moralen itzulpenak *El novelero de los estrados y tertulias y diario universal de las bagatelas* 1764an ateratakoan eman zituen. Eite didaktikokoa ere *El bufón de la corte* 1767ko aldizkaria izan zen. *El correo general de España* merkataritza erret ganberak babestuta atera zen 1770an. Beste argitalpenak ere *El pensador cristiano* edota *El erudito investigador*.

Guztiarekin, gure interese-koa 1760an estreinakoz atera *Cajón de Sastre literato o percha de maulero erudito, con muchos retales buenos, mejores y medianos, útiles, graciosos y honestos, para evitar las funestas consecuencias del ocio* izenburuko argitalpen didaktikoa da, bi urtetan atera zen astekaria alegia. Honen berrargitarapena, zertxobait aldatuxea, Nafarroan ateratako lehenbiziko aldizkaria izan zen: *El duende especulativo sobre la vida civil*, Iruñean Martínez baitan 1762ko urtarrilaren 1az geroz. Lan honen ateratzeko, Niphok Juan Antonio Mercadal ezizena aukeratu zuen. Bigarren zenbakirako, jada, jatorrizko izenburua eman zion berriz, *Cajón de Sastre*. (El duende especulativo, 8 zbk., «Principios históricos del arte de bailar», in ANA CLARA GUERRERO, *Viajeros británicos...*, 358-pasim). Hirugarrenez ere 1781ean atera zuen Madrilen.



## etorri ahalean

Patziku Perurena

### Neronek frogatua

**I**dazpena jatorriz asma- zio majikoa da, magoek egin eta zabaldua. Ikuspuntu hori Mesopotamian sortu eta, gero, greko eta juduen erlijioetan eta beren adarretan finkatu zen. Euskaldunen idurian, berriz, majia hori ez da esistitu; beti bereizi ditu idazpena eta sortilegioa. Hitz majikoa izan zaio, baina ez letra. Euskara idatzia, tradizioz *contradictio in adjecto* izan da, eta ez inoren inposaketagatik, baizik euskaldunen ikuskera beragatik.

Kristautzearekin ikusi zuen euskaldunak lehen aldiz idazpenaren ostentazio zeremonial izugarri eta iraunkorra. Baina euskaldunak sekulan ez du sumatu, goxatu, letren esentzia majikorik, eta saiheste popular horretaz landara garatu da komentuen eta burokraten grafolatia, euskal kaligrafoak eta pendolistak nagusi direla.

Hala, euskaldun gehienentzat letrak esistitu ez duten artean, guti batzuentzat Estatu- burokrazi eta erlijioari gogorki lotuak zeuden. Norbaitek balerrake halaxe izan dela edonon; bai, baina hemen osoki manera monolitikoan. Letrak kontsideratzeko ikusmodu estalinista apezkoi hori izan da, euskal letratan gailendu den bakarra.

Euskalduna, ez da berez letratu, letratu kondeszendiente baizik, euskaldun iletratuak jada beragandik bueltarik gabeko arrotzu eta ergetegi bateko azinda bezala ikusiko ditue- na; eta ez sekula letren jostetan eta arriskuan ibiltzeko txirrinta dutenak. Euskaldunak ez du izan, beraz, bere burua letratan paratuta liluratzeko pasionerik ez nortasunik.

Eta inor bere euskal maneran eta izakeran letratu izandu ezak (frailuneriak segituan itoko baitu edozein saialdi, inondik ere usnkatzen baitu hil ala biziko afera zaiola) euskal idazlea ikuspuntu frailuno horren herederu eta depositario huts bihurtu da, batere fiabar pinttarik gabe, euskal inkultu- ra letratuaren komentuko zol-

dan bakteriatu bezala birsor- tua.

Horren arabera, euskal le- trak soilik doktrina emateko, moralizatzeko, herri hau sal- batzeko, kongresu pitoak jen- daje pitoekin egiteko eta poliki kobratzeko erabili behar dira. Alde batean doktrinomania eta kobrantza, kostako dena kos- ta, eta bertzean gustorik eza, pasiorik batere eta kultura are eskasagoa, harrigarri litzake hemen zerbatto, ttintta bat, xirtaño baten itzala bada ere, sortzea.

Gero gainera, panorama li- luragarria osatzeko, Larra- mendi eta Garibai probintzia- no kakazuen garaitik hona, akonplejatuen portaera gail- endu da erabat azken milurte erdian. Euskal mamurro letra- tu tipikoa hiperespañol gisa fi- guratu nahian euskalduna de- la dioen subespañol xaborra da, espainolak bezainbat kul- tura eta kultura bera duela frogatu nahi duen probintzia- noa.

Gaixo tximinoak, zertaz ez doaz alkortze bidean eta xuxen xuxen espainolez ari? Ez, be- ren erlijioak debekatzen die: nola frogatu bestela espainolei interesanteak direla? Xixtarik ere ez baitute egin espainolei fidelki zerbitu frogatzeko edota espainolak bezala izateko ez- denik: hiztegiak, literatur ge- neroak, itzulpenak, euskal- sandien gomendio amorosak, denak, beti zakurraren barra- bilak bezain bangoardistak es- painolarekiko. Hauxe baizen ez da euskal kultura ofizial su- bentzionatu txalotua. Eta zein da animaleko esportzu horren lorpena? Ja ere? Ez arraiua! Euskal kulturak espainolak eta amerikanoak gainditu ditu gauza batean: euskal letratu munduko inor baino doktrina- rioago da.

Are gehiago Eduard: letrena ezezik, hitzen majia bera, me- todo monolitiko apezkoi stali- nario berberak irentsi dik he- men, «Hitzaren kirol naziona- la», «Hitz jolas bihurtu zen» eta gisako ebanjelio salbadoreak lekuko.

## Ziria

Trufa gaitzen

• Motxorrosolo •

**I**TSUA DENAK, IRAGAN HURBILEKO EGOERAREN AZTERKETA, ARGITASUN OSOZ pausatu zuen. Garai bateko bortizkeria, nagusiki gorri eta urdinez jantzi zen hura, ez omen zen batere errentagarria bizi gintuen ga- rai horretarako. Alta, ez zuen inolaz ere indarraren erabilera bazter- tzen. Ataka berrian, bere ingurukoek, pasata ziruditen moldeak era- kutsi dizkigute. Trufa gaitzen.

# Alfonso Ascunce

Escultorea eta margolaria

## «'Zaindaria' lana pisua eta totemikoa da»

**Alfonso Ascunce iruindarrak Lizarrako Biurteko Eskultura saria irabazi berri du. Pinturan zein eskulturan iaioa, lau hilabetetan gauzatuko duen Zaindaria lana pisua eta totemikoa dela dio, orain arte egin dituenekin konparatuz erraldoiena. Lau metro baino gehiagoko garaiera du, eta altzairuzkoa izanik, 1700 kiloko karga hartuko du.**



● MIKEL SAIZ

**E**GITEN DUEN LANAZ MINTZATZEAN, formetan ez ezik, hitzetan ere hausnartu duela nabaritzen zaio Alfonsori. Bere obraren bidean bezala, elkarrizketan ere tarreak ez dira handiak.

■ **Lizarrako Biurteko Eskultura sariaren lehenengo aldia irabazi berri duzu. Nola definituko zenuke garaile izan den lana?**

Pisua eta totemikoa da, 1700 kilo baino gehiago pisatzen dituelako. Bi zentimetrotako altzairuzkoa xaflek osatzen dute, lau metro pasako garaiera du eta bertikala da. Esanahi simbolikoari erreparatuz, gudari pasibo bat da, eta, era berean, zaindaria aktibo bat. Formalki zerikusia handia du afrikar eskulturarekin.

Kubismoarekin eta matematikarekin ere bai. Konstruktibistik eta iberiar egituratik ere asko du. Pertsonaia baten ideiarekin identifikatzen da planoen eta angelu zuzenen bidez.

■ **Idea garatzea asko kostatzen du?**

Bizitza osoa, ditudan hogeita hamabi urteak. Ez da eze-rezetik aterata den ideia, aurretik pinturan eta beste arlo batzuetan garatutako ideietatik dator, eta kasu honetan

Zaindaria piezan zehaztu dira.

■ **Proiektua non egingo duzu?**

Oraindik ez dakit zein lan-tegitan egingen dudana. Lau hilabeteko epea dut. Bi milloi pezetako sariarekin egin behar dut (80.000 libera), eta Lizarrako kiroldegia ondoan kokatuko dute.

■ **Jadanik Iruñeko Udalak artista gazteentzako urtero deitzen duen saria irabazi duzu eta hainbat erakusketa egin dituzue. Ordutik hona zure lanak aldaketa asko izan al ditu?**

Sari hartarako egin nuen lana ordurako izan zen. Gero eskultura erakusketa bat egin nuen margolanean islatzen zena garatzeko.

Orduan lanaren akabera onak eta garbitasunak ez zuen kezka handirik sortzen, baina gero zehaztasun formaletara jo du artelanak.

■ **Zuk ere garapen hori izan duzu?**

Uste dut baietz. Bai pinturan zein eskulturan.

■ **Lizarran kokatu behar duzun lanaz gain, beste proiekturik baduzu egun?**

Bi serie margotzen ari naiz: jorratu eta harrapatu, hain

zuzen. Donostiako Galeria Dieciseis-n gaur zabalduko dut nire lanen erakusketa maiatzaren 22a arte.

■ **Oraindik egin ez duzun zein lan egin nahiko zenuke etorkizunean?**

Badakit zer egin behar dudana bihar. Badakit lanean jarraitu behar dudala, eta egiten ari naizenari eutsi. Gustura nago nire lanarekin eta bide horri eutsiko diot.

■ **Nafarroan arte garaikidean murgildutako artista ugari zaudeten arren, ez dago toki esanguratsurik egiten duzuen erakusketekin zein aukera dituzue?**

Dagoen azpiegitura urria benetan hutsean gelditzen da ez delako inon ikusten. Badira esfortzu handia egiten ari diren salbuespenak. Badirudi Nafarroan izu politikoa dagoela azpiegitura on bat egiteko, izaera propioa duen zerbait egiteko konplexua dago.

■ **Francisco Javier Zubiaur Nafarroako Museoko zuzendariak duela gutxi zioen eraikinak ez duela identitaterik, eta ez duela jendea erakartzen. Iruñeko Udalak ere Madrilgo Arco Ferian urtero lanak erosten ditu jakin gabe non paratuko dituen. Erakundeek badakite zertan ari diren?**

Erosten den guztia ongi iruditzen zait, gutxi dela uste

### soslaia

Alfonso Askunzek 32 urte ditu. Ez du gogoan marrazten eta margotzen hasi zen eguna, horretan gogoak emanda eta pentsatu gabe hasi zelako. Zeramika eta Barruko Diseinua ikasi zituen Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan. Madrilen Eduardo Arroyoren margo tailerrean aritu zen, eta Montequeion (Frantzia) Albert Oehlenean.

Iruñeko Santa Marta kalean beste lau artistarekin batera duen tailerrean ordu asko igarotzen ditu egunean, oihalean edo beste material batean bere ideiak gauzatu ahal izateko. Nolanahi ere, pintatzeaz eta eskultura lantzeaz gain, Iruñetik kanpora abiatzen denean landaretza dagoen tokira joatea du gustuko.

Dena dela, ez du bazterrean uzten Bardeetako paisaia lehor eta horia. Irakurri duen azken liburuak landareak zituen protagonista. Artistaren irudiko, bere lanari dena aplikatu dakioke. «Hori da nire obraren proiektua, egiten dudana horretan gauza guztiak direla aplikagarriak. Badira nagusitzen diren bi ezaugarri: linealtasuna eta zirkuluak. Behin horiek adierazita, beste guztia onargarria da», azaldu du.

dudalako. Gainera, aurrekontuetan arteari egokitzen zaiona hutsaren hurrengo da. Kontua da gero prentsan artista batzuen lana txiste moduan tratatzen dela. Adibidez, Sloser artistaren lana tratatzerakoan iseka egin da. Esan beharrean nazioarte mailan oso sona handiko artista dela eta bere balioa frogatu duela, haren lanaren inguruan txisteak egiten dira. Atzera pausoak ematen ari dira. Jendeak ez du zientifikoaren lana ezbaian jartzen, baina badirudi edozeinek duela eskubidea artisten lana kritikatzeko eta baloratze. Nafarroan egoera pobrea da.

■ **Zuk zein beste bide hartu duzu zure lana erakusteko?**

Nire kezka handiena beti izan da estudio barrukoa.

Barruan lan egin. Ez dut presarik izan. Garrantzitsuena izan da lana ongi egitea, eta egiten dudanarekin ados egotea zentzu guztietan.

■ **Dena den, bizi ahal izateko kanpora ere begiratu beharko duzu?**

Pintura irakasten dut. Egun klaseak ematen ditut Zangozan, eta Alfredo Sada elkartearekin ere bai - duela bost urte sortu genuen Arte eta Lanbide eskolatik ateratako ikasleek-. Biak tartekatzen ditut eta aberasgarria da oso. Zuk irakatsi dezakezu, baina zure ikasleek ere asko erakusken dizute. Tailerreko lana pisua eta gogorra da, beti mugimenduan zaude eta gogoeta egiten, izaera propioa duten lanak egin nahi dituzulako.

→ Irene Arrizurieta

# Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 16a

ZALDIEROA.komikizopa



## Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

### Iraganeko argazkia

**A**lderdiak prest daude ekainaren 13ra arte eramanen gaituen lasterketan aritzeko. Hori bai, talde batzuk sendo dabilzan bitartean, bertze zenbait herrenak hartuta soma daitezke, barne gorpuzkerarik gabe. Konparazio batera, Nafarroako Alderdi Sozialista. Egia erran, naturak ez du nortasun-dohain bereziaz jantzi tuterarra buruzagitzarako, baina bazirudien behintzat garraile aterako zela eskuindarrekin harremanak estutu nahi dituztenen aurkako lehian. Bai zera! A zer nolako zartakoa eman dion Egurenak Madrildik. Gertatutakoa ikusirik, Lizarberen alderdi eraberrituari, eta, ondorioz, PSNren sinesgarritasunari ukaldi latza eman diote hautesleek begien aitzinean. Horregatik, baliteke hautesle horietako batzuek CDNra edo IUra jotzea.

Eta eraberritzearen aldetik makal dabilen bertze talde bat EA da. Talde honek hiru urtez Zabalik deitutako prozesua landu du, alderdia gizartera irekitzeko eta Nafarroatik beretik abertzaletasunaren barnean mezuak sortzeko. Bada, kanpotik ikusirik, harridura handia sortu du prozesu horren bultzatzaile nagusietariko bat, hots, Jose Mari Aierdi aurreneko bi postuetatik baztertu izanak, haren ordeez nor eta iraganeko argazkietako aurpegi bat sartzeko. EA ongi ezagutzen dutenek erraten zuten Aierdi eta Begoña Errazti -legegintzaldian benetan lan handia egindako parlamentarioa- joanen zirela zerrendako bi lehen postu horietan, baina «aitaponteko» handi batek proposaturik, Cabases sar daiteke bigarren postuan. Izen hori -gizonak dituen balioak den mendrenik ukatu gabe- bertze garai batekoa da, eta, gaur egun, bertzelako jendea behar da, Nafarroako abertzaletasunak hain beharrezkoak dituen aire, mezu eta molde berrien ekarle izan daitekeena, hemengo abertzaletasunari etorkizuna eman diezaiokena. Beude hortaz, iraganeko aurpegi guztiak iraganean. Bihar erabakiko da. Espero dezagun «lehengo lepotik burua» moduko esanerak erran behar ez izatea, jokuan baitago alderdirik gabeko jende askoren ilusioa.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Barañain:** Josetxo Goia-Aribek *Eunate* bere azken diskoko lanak interpretatuko ditu datorren ostegunean, Kultur Etxeko erakusketa aretoan, 20:00etan.
- **Zangoza:** Carmen Montoia sopranoak eta Pedro J. Rodriguez piano joleak kontzertua eskainiko dute bihar, 20:30etan, Carmengo Auditoriumean.
- **Lizarra:** San Joan elizan, Iraurgi Azkoitiko abesbatzak kantatuko du gaur, 20:45etan.

### ZINEMA

- **Tafalla:** Datorren asteartean eta ostegunean *Regreso al paraíso* Joseph Ruben zinemagilearen filma eskainiko dute 20:00etan eta 22:30etan. Bihar 18:00etan eta etzi 17:30etan, berriz, *Ahmed, príncipe de la Alhambra* emanen dute haurrendako. Emanaldi guztiak Cinema Españolen izanen dira.

### ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Hilaren 28a arte F, Javier Etaio *Tasio*-ren marrazki erakusketa ikus daiteke.
- **Zangoza:** *Imágenes de una peregrinación*; ruta *Jacobea* erakusketa ikus daiteke maiztaren 2a arte. Bertan, Donejakue Bidean hartutako hainbat irudi bildu dituzte.

### BESTELAKOAK

- **Barañain:** Haizea elkartean, bertso afaria egingen da gaur, 22:00etan. Bertso kantari hauek ariko dira: A. Egaña, A. Mendiluze, I. Elortza eta E. Arozena.
- **Iruñea:** Iruñeko Orfeoia abesbatzan kantatu nahi duten zaleen bila dabil. Interesatuak 948-22-20-89 telefonora dei dezakete.

► **Baztan:** Ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du Baztango Udalak eta Gazte Asanbladak. Partehartzaileak taldeka edo bakarka aurkez daitezke, eta hiru mailatan sailkatuko dira: lehenengoan, 12, 13 eta 14 urtekoak kokatuko dira; bigarrenean, 15, 16 eta 17 urtekoak; eta hirugarrenean, 18koak eta handik goitikoak.

Komikiak zein ipuinak euskaraz aurkeztu behar dira Baztango Udalak Elizondon duen egoitzan. Aurkezteko epea gaur zortzi bukatuko da. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-58-09-02 telefonora.

► **Burlata:** Emilio Majuelo historialariak *Ricardo Zabalza: Dirigente del campesinado na-*

*varro* (1898-1940) hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Axular elkartean.

► **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkar-teak mendi zeharkaldia antolatu du etziko. Ibilaldia Angel Oloron aterpean hasi eta Holztarteko zintzurretan bukatuko da. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-39-40-02 telefonora.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



¡E que o seu brazo sômentes sirva para guindar albres!...

Eta haren besoak arbolak ebaki besterik ez dezala egin!...